

Oñatiko EAJ-PNV Udal taldearen mozio alternatiboa:

OSASUN SISTEMA PUBLIKOA INDARTZEKO MOZIOA

1. Oñatiko EAJ Udal taldeak eskatzen dio Osasun Sailari, herrialde honetako osasun-sistema publikoak urte osoan eskaintzen duen laguntza, berma dezala, baita udaldian ere.
2. Oñatiko EAJ Udal taldeak eskatzen dio Osasun Sailari, urtero eskain dezala egiaztatutako prestakuntza-eskaintza guztia, datozen urteetan profesionalen eta Osakidetzako profesionalen arteko belaunaldi-txandari erantzun ahal izateko.

Era berean, Osasun Sailari eskatzen dio, prestakuntza amaitzean, kalitatezko enpleguaren aldeko apustuaren parametroen barruan lan-kontratu bat eskain diezaiela Euskadiko osasun-arretako sistema indartzen jarraitzeko beharrezkoak diren pertsona guztiei.

3. - Oñatiko EAJ Udal taldeak Osasun Sailari eskatzen dio Osakidetzako plantilla berritzeko, egonkortzeko eta beharrezkoa den neurrian handitzeko politikarekin jarraitzeko, XII. legegintzaldirako Gobernu Programako konpromisoak betetzeko, eta, ildo horretan, Lehen Mailako Arretari dagokionez, plaza hutsen eskaintzari eusteko eta zabaltzeko, estaldura indartzeko. Era berean, Lehen Mailako Arretako Estrategian (fisioterapia, farmazia komunitarioa) aurreikusitako profil profesional berriak inplementatzen jarraituko du, osasunaren zaintza integrala hobetzeko apustuan.

4. Oñatiko EAJ Udal taldeak Osasun Sailari eskatzen dio amaitu ditzala jada onartuta eta deituta dauden lan-deialdi publikoen prozesuak, plantillen jarraitutasuna eta egonkortasuna bermatzeko, eta, aldi berean, lanean jarrai dezala hurrengo urteko Lan eskeintza Publikoak (LEPak) eta deialdiak onartzeko, behin-behinekotasuna murrizteko eta enplegu egonkor eta kalitatezkoari laguntzeko konpromisoan.

Diruboa Arlos



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **SIERb27a9b62-ed3e-43aa-9d96-febfda3f2852**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>